

TARTEKO B2 MAILAREN PROGRAMAZIOA

Mailaren definizioa

Tarteko B2 Mailak Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B2 gaitasun mailaren ezaugarriak izanen ditu.

Tarteko B2 Mailaren xede nagusia da ikasleei gaitasuna ematea hizkuntza erraz eta eraginkortasunez erabiltzeko ohiko egoeretan eta berariazkoagoetan, kontzeptuen eta hizkuntzaren aldetik konplexuak diren ahozko eta idatzizko testuak ulertu, sortu eta tratatzea eskatzen dutenetan, hizkuntzaren aldaera estandarrean, hiztegi zabala erabiliz baina ez oso idiomatikoa, betiere gai orokorrean, gaur egungoez edo hiztunaren espezializazio eremukoez arituz.

Trebetasun bakoitzaren helburu orokorrak eta berariazkoak

A) Ahozko testuak ulertzeko jarduerak.

-Helburu orokorra

Edozein hizketa mota, bai aurrez aurreko elkarriketak bai diskurtso transmitituak, bizitza pertsonalari, sozialari, akademikoari edo profesionalari buruzko ohiko edo ohiz kanpoko gaien inguruan.

Ulertzeko gaitasunean ondokoek soilik izan dezakete eragina: atzeko gehiegizko hotsak, diskurtsoaren egituratze desgokiak edo hizkuntzaren erabilera idiomatikoak.

Hizkuntzaren aldetik konplexua den diskurtso baten ideia nagusiak hartzen ditu, hizkuntzaren maila estandarrean ahoskatuz bai gai zehatzak bai abstraktuak.

Diskurtso luzeak eta argumentu lerro konplexuak ulertzea, gaia nahikoa ezaguna denean eta diskurtsoaren garapena berariazko markagailuekin errazten denean.

-Berariazko helburuak

1. Adierazpenak eta mezuak, abisuak eta jarraipen zehatzak ulertzea; gai zehatzei eta abstraktuei buruzkoak eta hizkuntza estandarrean eta erritmo normalarekin emanak izanen dira.
2. Diskurtso eta hitzaldi luzeak ulertzea, bai eta argumentatu lerro konplexuei jarraitzea ere, gaia nahikoa ezaguna denean eta diskurtsoaren garapena berariazko markagailuekin errazten denean.
3. Hitzaldien, solasaldien eta txostenen ideia nagusiak ulertzea, bai eta hizkuntzaren aldetik konplexuak diren aurkezpen akademiko eta profesionaleko beste forma batzuk ere.
4. Hizkuntza estandarrean egiten diren irratiko dokumental gehienak eta grabatu edo transmititutako beste material batzuk ulertzea, eta hitz egiten duenaren gogo aldartea eta tonua identifikatzea.
5. Gaur egungo gaiei buruzkoak diren telebistako berri eta programa gehienak ulertzea.
6. Hizkuntza estandarrean egiten diren dokumentalak, zuzeneko elkarriketak, eztabaida saioak, antzerki lanak eta film gehienak ulertzea.

7. Zehaztasunez ulertzea hizkuntza estandarreko elkarrizketetan eta transakzioetan zuzenean esaten zaiona, baita atzeko hotsa izanda ere.

8. Bere inguruan esaten denaren zati handi bat atzematea, ahalegin pixka batekin.

9. Bere espezialitateko gaiei buruzko eztabaidak ulertzea eta solaskideak nabarmentzen dituen ideiak zehaztasunez ulertzea.

B) Ahozko testuak bakarrik zein beste batzuekin sortzeko jarduerak.

-Helburu orokorra

Deskribapen eta azalpen argi eta sistematikoak egitea, alderdi eta zehaztasun garrantzitsuak, solaskidearentzako eta komunikazio asmorako lagungarriak eta egokiak direnak, nabarmenduz. Elkarrizketetan arin eta bat-batean parte hartzea, hots, jatorrizko hitzuneekin elkarreraginez arituz, ez batari ez besteari tentsiorik sortu gabe. Gertaera eta esperientzia batzuen garrantzi pertsonala nabarmentzea, ikuspuntuak argi adierazi eta defendatzea, azalpen eta argudio egokiak emanez.

-Berariazko helburuak

1. Ahozko testuak bakarrik sortzeko jarduerak.

1.1. Jendaurreko adierazpenak egitea gai orokor gehienengatik inguruan, entzuleari tentsiorik edo eragozpenik ez sortzeko moduko argitasun, arintasun eta bat-batekotasunarekin.

1.2. Aldez aurretik prestatutako aurkezpenak argi eta zehatz egitea gai orokor edo espezialitateko gai askori buruz, gai bati buruzko ikuspuntuak azalduz, ikuspuntu zehatz baten aldeko edo kontrako arrazoiak emanez, zenbait aukeraren abantailak eta desabantailak erakutsiz, argudioak argi garatuz eta ideiak alderdi osagarriekin eta adibide argigarriekin zabaldu eta defendatuz, eta entzuleen galdera osagarri batzuei erantzutea, ez berari ez entzuleei tentsiorik ez sortzeko moduko arintasun eta bat-batekotasunarekin.

2. Ahozko testuak beste batzuekin sortzeko jarduerak.

2.1. Elkarrizketa batean ekimena hartzea, ideiak zabaldu eta garatzea, dela laguntza gutxiarekin, dela elkarrizketa egiten duenarengandik laguntza jasoz beharrezkoa izanez gero.

2.2. Aktiboki parte hartzea elkarrizketa eta eztabaida formaletan, laneko eztabaida eta bileretan, ohikoak izan ala ez, eta horietan gai edo arazo bat argi azaltzea, kauei eta ondorioei buruz hausnartuz eta ikuspegien abantaila eta desabantailak konparatuz, eta bere iritzia eta ikuspuntuak eskaini, azaldu eta defendatzea, bestelako proposamenak ebaluatzea, hipotesiak egin eta horiei erantzutea, zereginean aurrera egiten lagunduz eta beste pertsona batzuei parte hartzeko bidea emanez.

2.3. Aktiboki parte hartzea ohiko egoeretako elkarrizketa informaletan, iruzkinak eginez, bere ikuspuntuak argi azaldu eta defendatuz, bestelako proposamenak ebaluatuz, azalpen, argudio eta iruzkin egokiak emanez, hipotesiak eginez eta horiei erantzunez, hori guztia solaskideei ahalegin handia eskatu gabe.

C) Testu idatziak ulertzeko jarduerak.

-Helburu orokorra

Independentzia handi samarrarekin irakurtzea, irakurketaren estiloa eta abiadura testu eta xede desberdinetara egokituz eta erreferentzia iturri egokiak hautatuz, eta irakurketako hiztegi aktibo zabala izatea, nahiz eta maiz agertzen ez diren adierazpideekin eta lexiko espezializatuarekin zailtasunen bat izan.

-Berariazko helburuak

1. Jarraibide luze eta konplexu samarrak ulertzea, baldintzei eta ohartarazpenei buruzko zehaztasunak barne, atal zailak berriz irakur baditzake betiere.
2. Testu zabal eta konplexuetan laster bilatzea, zehaztasun garrantzitsuak aurkitzeko. Gai orokor askori buruzko albiste, artikulua eta txostenen edukia eta garrantzia laster identifikatzea.
3. Gutunak irakurtzea eta esanahi nagusia erraz atzematea.
4. Gaur egungo gaiei buruzko artikulua eta txostenak ulertzea, zeinetan egileek jarrera edo ikuspuntu zehatzak hartzen baitituzte.
5. Gaur egungo literatur prosa ulertzea, oso konplexua den hiztegia duenean izan ezik.

D) Testu idatziak bakarrik zein beste batzuekin sortzeko jarduerak.

-Helburu orokorra

Testu argi eta zehatzak idaztea, solaskideari eta komunikazio asmoari egokituak, eta gai orokor askoren inguruan. Halaber, gai orokorreko buruzko ikuspuntu bat defendatzea, aukeren alde onak eta txarrak azalduz, edo zenbait iturritatik heldu diren informazio eta argudioak laburbilduz eta ebaluatuz.

-Berariazko helburuak

1. Testu idatziak bakarrik sortzeko jarduerak.

- 1.1. Argudio bat garatzen duten testuak idaztea, ikuspuntu jakin baten aldeko edo aurkako arrazoiak emanez eta aukera desberdinen alde onak eta txarrak azalduz.
- 1.2. Filmen, liburuen edo antzerki lanen aipamenak idaztea.
- 1.3. Gai ezagun bati buruz argitasunez egituraturako hitzaldi batean garrantzitsuak iruditzen zaizkion alderdiei buruzko oharak hartzea, nahiz eta hitzei berei begiratzeko joera izateagatik informazioren bat galdu.
- 1.4. Testu bai faktualak bai fikziozkoak laburtzea, elkarren kontrako ikuspuntuei eta gai nagusiei buruzko iruzkinak egin eta aztertuz, eta iritziak, argudioak eta azterketak dituzten albisteen, elkarrizketen edo dokumentalen zati batzuk laburtzea, bai eta filmetako edo antzerki lanetako gertaeren trama eta sekuentzia ere.

2. Testu idatziak beste batzuekin sortzeko jarduerak.

- 2.1. Gutunak idaztea, euskarri batean edo bestean, eta horietan albisteak eta ikuspuntuak eraginkortasunez adieraztea, emozio pixka bat helaraztea, gertaeren eta esperientzien garrantzi pertsonala nabarmentzea eta gutuna hartuko duenaren eta beste pertsona batzuen ikuspuntuak eta albisteak komentatzea.

E) Bitartekotza-jarduerak.

-Helburu orokorra

Sintetizatu eta hirugarrenei ahoz zein idatziz helaraztea zenbait iturritako (adibidez, komunikabideetako, edo hezkuntzako edo lanbideko txostenetako bestelako agirietako) testu idatzietatik jasotako informazio eta argudio nagusiak eta alderdi garrantzitsuenak.

-Berriazko helburuak

- 1.- Xede-hizkuntzako edo beste hizkuntza batzuetako hitzunen arteko bitartekotza egitea egoera ohikoetan zein espezifikoago eta konplexuagoetan; eta, horretarako, garrantzitsuak diren informazio, jarrera eta argudioak jakinaraztea, alde bateko eta besteko jarrera eta argudioen abantailak eta desabantailak alderatu eta erkatzea, horiei buruzko iritzia argi eta atseginez adieraztea eta konponbideei edo jardunbideei buruzko iradokizunak eskatu eta eskaintzea.
- 2.- Lagunen, ezagunen, senideen edo kideen arteko trukeetan zehar, interpretazioak egitea, esparru pertsonalean zein publikoan, ohiko egoeretan zein espezifikoago edo konplexuagoetan (adibidez, bilera sozialetan, zeremonietan, ekitaldietan edo kultura-bisitaldietan), baldin eta zenbait xehetasun baieztatze eskatzea badago.
- 3.- Hirugarrenentzako ohar idatziak hartzea ongi egituraturako eta hizkuntzaren aldaera estandarrean egindako aurkezpen, elkarrizketa edo eztabaidaren batean, norberaren intereseko edo espezializazio akademiko edo profesionaleko gaiak direnean, eta, egiteko horretan, puntu eta alderdi garrantzitsuenak jasotzea eta oharrak behar bezalako zehaztasunez eta ongi ordenatuta hartzea.
- 4.- Idatziz laburtzea albisteak eta elkarrizketen edo dokumentalen zatiak, non azaltzen baitira iritzia, argudioak eta analisia, eta filmen edo antzezlanen gertaeren korapiloa eta sekuentzia.

Edukiak eta gaitasunak

Aurreko lerroaldean aipatu helburuak lortzeko, ikasleak garatu beharko dituen gaitasun partzialei dagozkien eduki hauek.

Edukiok, jarraian, atal bereizietan azaltzen dira, nahiz eta benetako komunikazio egoeretan gaitasun partzial guztiak aldi berean erabiltzen diren. Horregatik, irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuan, osotasun esanguratsu batean integratu beharko dira, trebetasun bakoitzerako proposatu diren helburuak abiaburutzat hartuta, halatan non ikasleak behar dituen gaitasun guztiak bereganatuko dituen, proposaturako komunikazio jarduerak eta eginkizunen bitartez.

1. Gaitasun orokorrak

1.1. Eduki nozionalak

Ondoren datorren eduki nozionalen zerrendan oinarritzko kontzeptuak sartzen dira. Haietatik, dagozkien azpikategoriak aterako dira, mailarako eta hizkuntzarako behar diren hizkuntza adierazleekin.

1.1.1. Entitatea.

Entitateak adieraztea eta haien erreferentzia egitea; zehaztapenak, galdera erlatiboak, orokortzeak.

1.1.2. Propietateak.

a) Existentzia: izan / ez izan, presentzia / absentsia, prestasuna / prestasun eza.

b) Kopurua: zenbakiak (zenbakarriak, neurriak, kalkuluak), kopurua (osoa, partziala), gradua (zenbakitan graduatzea, kopuru mugagabeak, adjektiboan / adberbioan).

c) Nolakotasuna:

-Propietate fisikoak: forma, tenperatura, kolorea, materiala, konsistentzia, hezetasuna, ikusgarritasuna, ikusmena, propietate akustikoak, zaporea, usaina, adina, egoera ikusgarria.

-Propietate psikikoak: prozesu kognitibok, sentimenduak (txera, nahiago dena azaltzea, maitasuna, gorrotoa, zoriona, asebetetzea, esperantza, desilusioa, beldurra, kilikadura, haserrea), nahia (erabakiak, asmoak).

-Balorazioa: prezioa, balioa, kalitatea, estetika, onargarritasuna, egokitasuna, zuzentasuna, benetakotasuna, normaltasuna eta salbuespena, nahia (nahiagotasuna, esperantza) baliagarritasuna, garrantzia, beharra, aukera, gaitasuna, zailtasuna, arrakasta.

1.1.3. Erlazioak.

a) Espazioa (espazioan absolutuki eta erlatiboki kokatzea):

-Posizioa: egonean, tokia (mugatu gabea, mugatua, kanpoko / barnekoa, horizontala / bertikala) posizio erlatiboa (zehatza, hurbileko / urruneko inguruneari dagokionez, puntu kardinalei dagokienez), hurbiltasuna / urruntasuna.

-Mugimendua, norabidea: mugimendua eta tokialdatzea, mugimendua eta garraioa, mugimenduaren norabidea (horizontala, bertikala), xedea, norabidea, jatorria, bidea.

-Dimentsioak, neurriak: tamaina, luzera, azalera, bolumena, pisua.

b) Denbora (denboran barnako toki absolutua eta erlatiboa):

-Momentu puntuala, espazioa: segundoak, orduak, eguna, egunaren momentua, asteko eguna, jai eguna, hilabetea, urtaroa, data, etab.

-Denbora harremanak (lehenago, aldi berean, ondoren).

-Puntualitatea / inpuntualitatea.

-Iraupena, hasiera, iragaitza, bukaera, aldaketak, iraunkortasuna, abiada, maiztasuna, errepikatzea.

c) Egoerak, prozesuak eta jarduerak (aspektua, modalitatea, parte-hartzaileak eta haien harremanak).

d) Harreman logikoak (egoeren, prozesuen eta jardueren artean):

-Egintzaren, gertaeraren harremanak: egilea, objektua, hartzailea, tresna, modua.

-Predikazioa.

-Antzekotasun harremanak (identitatea, konparazioa, korrespondentzia, diferentzia).

-Jabetasuna: posesioa (jabea, jabetza, aldaketa), zatia, osotasuna.

-Konjuntzioa.

-Disjuntzioa.

-Barne-hartzea / kanpo-uztea

-Aurkakotasuna, mugatzea.

-Kausatasuna: kausa, jatorria, ondorioa, efektua, helburua.

-Baldintza.

-Dedukzioa, ondorioa.

1.2. Eduki eta gaitasun soziokulturalak

Tarteko Mailan (B2) garrantzi berezia du gaitasun soziokulturalak, zeren eta maila honetako ezaugarri nagusien artean aipatu behar da ikasleak aise mugitzen ahal direla diskurtso sozial batean, xede hizkuntzako hiztunekin haiek nahi gabe dibertitu edo haiei eragozpenik sortu gabe erlazionatzen ahal direla, jatorrizko hizkuntzan izanen luketen jarrera ez dena izatera behartu gabe, eta era askotako egoeretan egokiro adierazteko gauza direla.

Gaitasun hauek B2an izanen dute garapena zeharkako zereginen bitartez bultzatuko da, hots, xede hizkuntzan hitz egiten duten erkidegoetako alderdi soziologikoak, geografikoak, historikoak edo kulturalak bilduko dituzten zereginen bidez, alderdi horiek ikasleek benetako komunikazio egoeretan ulertu, sortu eta landu beharko dituzten benetako testuetan agertzen diren moduan. Honako alderdi hauek hartuko dira kontuan:

1.2.1. Eguneroko bizitza:

-Ordutegiak eta ohiturak.

-Lan praktikak.

-Aisia jarduerak.

-Festak.

1.2.2. Bizi baldintzak:

-Bizi mailak.

-Etxebizitza.

-Lana.

-Gizarte laguntza.

1.2.3. Kideen arteko harreman pertsonalak, gizarte egitura eta berdintasunezko harremanak:

-Sexuen artean.

-Familian.

-Belaunaldien artean.

-Laneko egoeretan.

-Agintariekin eta administrazioarekin.

-Komunitatean.

-Talde politiko eta erlijiosoen artean.

1.2.4. Balioak, sinesmenak eta jarrerak:

-Gizarte klaseak.

-Lanbide taldeak.

-Eskualdeetako kulturak.

-Erakundeak.

-Historia eta tradizioak.

-Politika.

-Arteak

-Erljioa.

-Umorea.

1.2.5. Zinesia, proxemika eta paralinguistika alderdiak:

-Keinuak.

-Jarrerak.

-Aurpegi adierazpenak.

-Ikusizko kontaktua.

-Gorputz kontaktua.

-Hizkuntzaz kanpoko soinuak eta kualitate prosodikoak (ahots kualitatea, tonua, azentuazioa, bolumena).

1.2.6. Gizarte konbentzioak:

-Moduzkoak.

-Ohiturak.

-Jokaeraren gaineko konbentzio eta tabuak.

1.2.7. Errituzko jokaerak:

-Jokaera publikoak.

-Ospakizunak.

-Zeremonia eta praktika sozial eta erlijiosoak.

1.2.8. Oinarrizko geografia:

-Klima eta ingurumena.

-Hizkuntza horretan hitz egiten duten herrialde nagusiak eta hiri ezagunak. Geografiak hizkuntzan duen eragina: hizkuntzaren aldaerei buruzko oinarritzko sarrera.

1.2.9. Bitartekotza

Bitartekotza-jarduerak nolabaiteko malgutasunez egitea ahalbidetzen duten ezagutzak, trebetasunak eta kultura arteko jarrerak kudeatzea: autokontzientzia kulturala, kontzientzia soziolinguistikoa, ezagutza kultural orokorrak eta espezifikagoak, behaketa, entzumena, ebaluazioa, harremanetan jartzea, egokitzea, adeitasuna.

Aipatu diren eduki guztietan genero azterketa sartu beharko da, ikastaroetan parte hartzen duten pertsona guztiek emakume eta gizonen artean kultura honetan eta beste batzuetan izaten diren desberdintasun egoeren aurrean sentsibilizazio, gogoeta eta kontzientziazio handiagoa izan dezaten.

2. Komunikazio gaitasunak

2.1. Hizkuntza gaitasunak

Maila honetan ikasleak deskribapen argiak egiteko, ikuspuntuak adierazteko eta argumentuak garatzeko beharrezkoak diren hizkuntza elementuak bereganatuak ditu, zeregin horretan perpaus konplexu batzuk erabiltzeko gauza da, eta ez zaio asko nabaritzen behar dituen hitzak bilatzen aritzen dela.

2.1.1. Eduki lexiko-semantikoak.

Maila honetan ikasleak hiztegi zabala du bere espezialitateko gaien eta gai orokorragoen inguruan. Formulazioa aldatzen badaki errepikapen asko ez egiteko, baina lexikoan dituen hutsuneek oraindik ere duda-muda eta itzulinguruak sortzen dizkiote.

Zehaztasun lexikal handia du gehienetan, nahiz eta nahasteren bat izan edo akatsen bat egin hitzak hautatzean, baina betiere komunikazioari oztoporik sortu gabe.

Hitz errepertorioak eta hiztegi hori behar bezala erabiltzea (produkzioa eta ulermena) maila honetarako zehaztu diren helburuek aipatzen dituzten testuinguruetan. Errepertorio horiek honako arloak kontuan hartuta garatuko dira:

- a) Identifikazio pertsonala: eremu pertsonal eta publikoan jokatzeko behar diren datu pertsonalak, hain zuzen ere eguneroko bizitzako egoeretan, adiskideekin eta atzerriko herrietara egindako turismo bisitetan behar direnak.
- b) Etxebizitza, etxea eta ingurua: etxea, hiria, landa, herrialdea.
- c) Eguneroko bizitzako jarduerak: eguneroko errutina, ordutegiak, lanak eta lanbideak, askotariko jarduerak.
- d) Denbora librea eta aisia: zaletasunak, jokoak eta kirola, txangoak, jarduera kulturalak, irratia eta telebista, prentsa idatzia, festak, jatetxeak, tabernak, estadioak.
- e) Bidaia: garraioak: geltokiak, aireportuak, landa, hondartza, mendia, turismoa, oporrak.
- f) Giza eta gizarte harremanak: familia, adiskideak, elkarretaratzeak.
- g) Osasuna eta gorputzaren zainketa: ajeak, istripuak, kontsultak.

h) Hezkuntza eta prestakuntza.

i) Erosketak eta merkataritza jarduerak: dendak, biltegiak, merkatuak, bankuak.

j) Elikadura: dietak, tokiko janaria, janari osasuntsua, zabor jana.

k) Ondasun eta zerbitzuak: garraioak, osasuna eta abar.

l) Hizkuntza: ikasten den hizkuntzak munduaren testuinguruan zer toki hartzen duen.

m) Komunikazioa: telefonoa, gutunak, posta elektronikoa, Internet.

n) Klima, eguratsuko baldintzak eta ingurumena: urtaroak, eguratsuko fenomenoak, temperatura. ñ) Zientzia eta teknologia.

o) Politika eta gizartea.

p) Genero berdintasuna eta zuzentasuna.

2.1.2. Gramatikako edukiak (2. eranskinean).

2.1.3. Ortografiako edukiak (2. eranskinean).

2.1.4. Fonologiako edukiak (2. eranskinean).

2.2. Gaitasun soziolinguistikoak

Hizkuntzaren erabilera ardatz duen hurbilketa batean nahitaez ikertu behar da hizkuntzaren dimentsio soziala. Ikasleek hainbat gaitasun soziolinguistiko bereganatu beharko dituzte, kasuko mailan behar adinako trebeziarekin komunikatu ahal izateko. Gaitasun horien artean gizarte harremanetako hizkuntza markatzaileak ezagutu, bereizi eta, hala behar bada, erabiltzea dago: tratamendu formulak, agurrak, gizalege arauak, herri esapideak (atsotitzak, modismoak ...) eta erregistroa (formala, informala, familiakoa, lagun artekoa ...) dialektoak eta azentuak.

B2an, ikasleak gaitasun hori garatu behar du arau soziolinguistiko askoren jabe egiteko eta egoera desberdinetan egokiro erlazionatu ahal izateko, adierazpenak sineste sendoz, argitasunez eta adeitasunez egiteko gauza izan dadin bai erregistro formalean bai informalean.

2.3. Gaitasun pragmatikoak

2.3.1. Eduki funtzionalak.

a) Ezagutza, iritzia, sinesmena eta aierua aditzera ematearekin lotura duten funtzioak edo mintza-egintzak: baieztatzea; iragartzea; ohar gehigarriak egitea; baietz ezatea; egozte; sailkatzea; gertaera baten egiazkotasuna berrestea; aieruz aritzea; berrestea; deskribatzea; ezeztatzea; bat ez etortzea; adostasuna eta desadostasuna adieraztea; ez jakitea, zalantza, eszeptizismoa eta iritza bat adieraztea; hipotesiak egitea; zerbait identifikatzea eta nork bere burua identifikatzea; informatzea; eragozpena adieraztea; auresatea; kontra egitea; zuzentzea; ihardestea; suposatzea.

b) Eskaintzarekin, asmoarekin, borondatearekin eta erabakiarekin lotura duten funtzio edo mintza-egintza konpromisiboak: bat etorri; onartu; baimendu; zerbait egiteko asmoa edo nahia adierazi; gonbidatu; zin egin;

zerbait egiteko ezetza eman; zerbait eskaini; laguntza eskaini; zerbait egiteko nork bere burua eskaini; promes egin; atzera egin.

c) Funtzio edo mintza-egintza direktiboak, zeinen helburua hartzaileak zerbait egitea ala ez egitea den, hori beste mintza-egintza bat izan nahiz bestelako egintza bat: aholku ematea; ohartaraztea; abisatzea; mehatxatzea; animatzea; ahalmena ematea; jarraibideak ematea; baimena ematea; eskatzea; ukatzea; gogogabetzea; ez onartzea; norbait zerbati egitetik salbuestea; asmoa kentzea; galdatzea; ikaratzea; agintzea; zerbait, laguntza, berrespena, aholkua, informazioa, jarraibideak, iritzia, baimena edo norbaitek zerbait egin dezala eskatzea; norbaiti baimena ukatzea; gogatzea; norbait norbaiten edo zerbaiten kontra jakinaren gainean jartzea; debekatzea; proposatzea; erreklamatzeko; gomendatzea; norbaiti zerbait gogoraraztea; murriztea; eskaera egitea; iradokitzea; erregutzea.

d) Gizarte harremana ezarri edo mantentzea eta beste pertsonen gaineko jarrerak adieraztea helburu duten funtzioak edo mintza-egintzak, fatikoak eta elkartasunezkoak: gonbit bat onartu eta ezetza esatea; eskertzea; arreta erakartzea; errukia izatea; ongi etorria ematea; agur esatea; dolumina adieraztea; zoriontzeko; konplimentuak egitea; iraintzea; norbaitez edo zerbaitez interesatzea; gonbidatzea; barkamena eskatzea; nork bere burua edo beste norbait aurkeztea; errefusatzeko; agur egitea.

e) Funtzio edo mintza-egintza espresiboak, egoera jakin batzuen aurrean jarrerak edo sentimenduak adierazten dituztenak: zerbait leporatzea; mirespena, poza edo zoriontasuna, norbait gogoko izatea eta harenganako sinpatia, onespena eta desonespena, konfiantza eta konfiantzarik eza, desengainua, interesik eza eta interesa, arbuioa, nahigabea, mina, zalantza, eszeptizismoa, itxaropena eta itxaropen eza, estimua, asegabetasuna, zerbait gogokoago izatea, etsipena, asebetetzea, ezustea, beldura edo tristura adieraztea; defendatzea; erregutzea; damu izatea; aurpegiratzea.

2.3.2. Eduki eta gaitasun diskurtsiboak.

Hizkuntzaren erabilera ardatz duen hurbilketa batean nahitaezkoa da testua hartzea komunikazio unitate gutxienekotzat. Testu bat komunikazioaren aldetik baliagarria izanen bada, koherentea izan behar du produzitzen den edo interpretatzen den testuinguruarekiko, eta barne kohesio edo antolamendua eduki behar du ulermena errazagoa izateko eta zer komunikazio dinamikaren barrenean garatzen den islatzeko.

Ikasleek, beraz, behar diren diskurtso gaitasunak bereganatu beharko dituzte, testuak koherentziari eta kohesioari begira produzitzeko gauza izan daitezen.

2.3.2.1. Testu koherentzia: testua komunikazio egoerari egokitzea:

-Testu mota eta testu era.

-Hizkuntza aldaera.

-Erregistroa.

-Gaia. Hurbilketa eta edukia: hitzak, egitura sintaktikoak eta eduki garrantzitsuena hautatzea.

-Espazioaren eta denboraren testuingurua: espazioaren erreferentzia eta denboraren erreferentzia.

2.3.2.2. Testu kohesioa: testuaren barne antolamendua: testu unitatearen hasiera, garapena eta bukaera:

-Diskurtsoaren hasiera: hasiera mekanismoak (kontaktu hartzea eta abar); gaia sartzea; tematizazioa.

-Diskurtsoaren garapena:

Gaiaren garapena:

.Gaiari eustea: korreferentzia (artikulua, izenordainak, erakusleak erabiltzea; aditz denboren komunztadura); elipsia; errepikapena (oihartun lexikoa; sinonimoak, antonimoak, hiperonimoak, hiponimoak, eremu lexikoak); birformulazioa; enfasia.

.Gaia zabaltzea: adibideak jartzea; errefortzua; kontrastea; azpigaiak sartzea.

Gaiaren aldaketa: digresioa; gaia berreskuratzea.

-Diskurtsoaren bukaera: laburpena / laburbiltzea, testu bukaera adieraztea eta testua bukatzea.

-Ahozko diskurtsoari eutsi eta segitzea: hitz txanda hartu, eutsi eta uztea. Laguntzea, ulertu duzula adieraztea, argibideak eskatzea eta abar. Intonazioa, ahozko testuari kohesioa emateko baliabide: Intonazio patroiak nola erabili.

-Puntuazioa, testu idatziari kohesioa emateko baliabide: puntuazio zeinuak nola erabili.

2.3.2.3. Testu tipologia.

-Idatzizko testu hartzaileak:

Postalak, gutun pertsonalak eta posta

elektronikoa. Ohar pertsonalak.

Gonbitak.

Zorionak.

Iragarkiak

.

Informazio foiletoak eta merkataritza foiletoak.

Sukalde errezetak. Kartak eta menuak.

Prentsako artikulak.

Aisiako agenda eta ikuskizun iragarkiak.

Horoskopoa.

Denbora-pasak

.

Elkarriketak.

Kantuak.

Testu literarioak: ipuinak, narrazio laburrak, alegiak, olerkiak.

Irakasleek prestatutako materiala.

Webguneak.

Jarraibideak

.

-Ahozko testu hartzaileak:

Ahozko testuak, irratikoak, megafoniazkoak eta grabatuak (erantzungailuak).

Irakasleen eta ikasleen gainerakoen azalpenak.

Eremu pertsonaleko solasak.

Toki publikoetako solasak: dendak, medikuaren kontsultak, informazio guneak ..

Gertaerak, ohiturak, prozesuak kontatzea ...

Jarraibideak.

Debateak eta
eztabaidak.

Elkarrizketa laburrak.

Inkestak.

Iragarkiak

.

Berriak.

Lehiaketak.

Marrazki
bizidunak.

Kantuak.

-Testu produktibo idatziak:

Postalak, gutun pertsonalak eta posta elektronikoa.

Ohar eta apunte pertsonalak.

Gonbitak.

Zorionak.

Iragarki
txikiak.

Informazio
kartelak.

Jarraibideak.

Objektu, toki eta pertsonak deskribatzea.

Gertaerak, ohiturak, prozesuak kontatzea ...

Datu pertsonalak eskatzen dituzten eskabide eta inprimaki errazak.

-Ahozko testu produktiboak.

Eremu pertsonaleko solasak.

Toki publikoetako solasak: dendak, medikuaren kontsulta, informazio guneak ...

Gertaerak, ohiturak, prozesuak kontatzea ...

Objektuak, tokiak eta pertsonak deskribatzea.

Jarraibideak.

Metodologia

Hizkuntza, gure ikuspuntutik begiratuta, "gizarte elkarreragineko" hainbat egoeratan komunikatzeko balio duen sistema da; egoera horietan hizkuntza sistema hori modu esanguratsuan eta testuinguruarekiko egokian erabiltzen da, hainbat ataza aurrera eramateko. "Ekintzara begirako hurbilketa" hau, Hizkuntzetarako Europako Marko Bateratuak biltzen duena, izanen da hizkuntzak ikasi eta irakasteko erabiliko den metodologiaren ardatza. Ikasketa hori oinarritzeko, berariazko helburuak abiaburutzat hartuta diseinatutako atazak erabiliko dira. Ataza horiek egiteko, ikasleek plangintza, gauzatze, kontrol eta konpontze estrategiak erabiltzen ikasi beharko dute, eta bai diskurtso prozedurak eta ezagupen formalak ere, komunikazio egoeretarako egokiak diren testuak ulertu eta produzitzeko gauza izan daitezen.

Atazek, eta haiekin lotura duten jarduera guztiek, ikaslea eta haren jarduna hartuko dituzte ardatz nagusitzat. Irakaslearen papera funtsean aurkezlearena izanen da, jardueraren bultzatzaile eta ebaluatzailearena, eta hizkuntzaren erabilera egokia gehiago balioetsiko du hizkuntzaren sistema teorikoa eta zuzentasun formal hutsa baino. Erabiliko dugun metodologiak, bada, ikasleari ataza horiek eraginkortasunez gauzatzeko behar dituen gaitasunak eta trebetasunak emanen dizkio.

Eduki mota desberdinak modu integratuan aurkeztuko zaizkio ikasleari, ulermen, adierazpen, elkarreragin edo bitartekotzako komunikazio atazen barrenean edo haien konbinazioen barrenean.

Hizkuntza hutseko edukiak komunikaziorako bide dira. Gramatikaren eta lexikoaren ikaskuntza helburu horretarako tresna da, ahal den neurrian arauen indutitzea erabiliz.

Gramatika gaitasunak ebaluatzeko, komunikazio errealeko eta testuinguru batean jarritako egoerak erabiliko dira beti. Hutsak tarteko hizkuntza bezala onartzen dira, eta sistematikoak direnean baizik ez dira kontuan hartuko edo komunikazioari traba egiten diotenean: hutsak aztertzeak ikasleak bere jardunaren gainean gogoeta egin eta hobetzeko balio du.

Gaitasun soziokulturalak garatzeko, beti atazen bidez bereganatu beharko dituzte. Ataza horietan benetako materialak erabiliko dira, ikasleek ikasten duten hizkuntzaren kulturako ohitura eta ezaugarriekin kontaktu zuzena eduki dezaten.

Ikasleek berezko gaitasunak ez ezik, auto-formaziorako behar diren ikaskuntza estrategiak ere garatu beharko dituzte.

Hizkuntzaren erabilera egokia bultzatzeko irakasleek hainbat ikaskuntza esperientzia aurkeztuko dituzte. Horietan:

- Ikasten den hizkuntza mintzatzen den kulturenganako interesa eta sentsibiltatea sustatuko dira.
- Ikasleak komunikatzeko bere buruarengan behar duen konfiantza bultzatuko da.
- Ikasgelan ikasteko motibazioa handituko da eta
- Nork bere kabuz ikasteko gaitasuna garatuko.

5.-Azterketaren denboralizazioa eta egitura:

DENBORALIZAZIOA

	PRUEBA	DURACIÓN	
EXAMEN ES- CRITO	Comprensión de textos escritos (CE)	60'	3h 40'
	Comprensión de textos orales (CO)	45'	
	PAUSA 10'		
	Mediación (MD) escrita	30'	
	Producción y Coproducción de textos escritos (EE)	75'	
EXAMEN ORAL	Mediación (MD) oral	14' (pareja)	30'
	Producción y coproducción de textos orales (EO)	16' (pareja)	

IDATZIAREN ULERMENA

TAREA	MICRO-DESTREZA	TIPO DE TEXTO	PROCEDIMIENTO
Tarea 1 6 o 7 ítems	-Reconocer las ideas principales de un texto.	Texto de hasta 550 palabras	-Elegir la opción a b c que mejor responda a cada una de las 6/7 preguntas
Tarea 2 6 o 7 ítems	-Reconocer los detalles de un texto. -Identificar las opiniones, actitudes tanto implícitas como explícitas.	6/7 textos cortos o párrafos de un texto (hasta 500 palabras)	-Relacionar 8/9 enunciados con uno de los 6/7 textos o párrafos. (Habrá un enunciado de ejemplo y 2 distractores).
Tarea 3 6 o 7 ítems	-Reconocer la estructura del texto y/o la conexión entre las partes	Texto de hasta 500 palabras del que se han extraído 6/7 frases o sintagmas	-Leer el texto incompleto e identificar, de entre 8/9 fragmentos posibles, los que corresponden a sus 6 o 7 huecos. (2 distractores).
Tarea 4 7 u 8 ítems	-Anticipar elementos del texto en función del contexto	Texto de hasta 350 palabras del que se han extraído 7 u 8 palabras	-Leer el texto incompleto y elegir de entre 20 opciones la que corresponde a cada hueco. (11/12 distractores + ejemplo) -Leer el texto incompleto y elegir la opción a/b/c para cada hueco.

ENTZUNAREN ULERMENA

TAREA	MICRO-DESTREZA	TIPO DE TEXTO	PROCEDIMIENTO
Tarea 1 7 u 8 ítems	-Sentido general.	7/8 anuncios o noticias hasta 5'30''(incluido el ejemplo)	Relacionar cada uno de los 7/8 textos con su epígrafe de entre los 9/10 propuestos (2 distractores).
Tarea 2 6 o 7 ítems	- Comprender las ideas principales.	Un texto monológico, entrevista o conversación de hasta 4 minutos	- Elegir la opción correcta (a, b, c) para cada pregunta/enunciado. -Para cada uno de los 6/7enunciados, decir si es verdadero o falso.
Tarea 3 6 o 7 ítems	-Comprender los detalles de un texto.	Una conversación de dos hablantes que se distingan claramente de hasta 3 minutos	-Elegir la opción correcta a/b/c para cada pregunta/enunciado.
Tarea 4 6 o 7 ítems	-Identificar las opiniones, actitudes tanto implícitas como explícitas.	Un texto de hasta 4 minutos	-Elegir la opción correcta a/b/c para cada pregunta/enunciado.

IDAZMENA

	COPRODUCCIÓN	PRODUCCIÓN
Tipo de texto	Correo electrónico Chat Foro	Sección de producción libre de un formulario, carta de motivación, blogs.
Propósito comunicativo	Empatizar Hacer cumplidos Acusar, defender, excusar Lamentar Reprochar Resaltar aspectos importantes Formular sugerencias, condicione e hipótesis. Dar y solicitar información detallada en correspondencia formal Explicar y justificar motivos en correspondencia formal	Formular sugerencias, condiciones e hipótesis. Resaltar importancia personal de hechos y experiencias. Exponer asuntos con cierto detalle. Desarrollar un argumento razonando a favor y en contra de un punto de vista concreto. Explicar las ventajas y desventajas de varias opciones, y aportar conclusiones justificadas y sugerencias sobre futuras o posibles líneas de actuación.
Extensión	100-120 palabras	180-200 palabras
Tiempo	75 minutos	
Puntuación	10 puntos	10 puntos

MINTZAMENA

	PRODUCCIÓN	COPRODUCCIÓN
Tarea	Expresión de la opinión personal a partir de unas preguntas propuestas que relacionan el tema con la opinión personal del candidato.	Entablar una conversación en la que se debaten ciertos aspectos de un tema acotado por un enunciado.
Propósito comunicativo	Expresar puntos de vista con claridad, proporcionando explicaciones y argumentos adecuados.	Expresar opinión Defender puntos de vista Hacer hipótesis Comparar distintas opciones Mostrar acuerdo / desacuerdo Confirmar información Pedir aclaraciones
Soporte	Tarjeta A4 con dos fotos ilustrativas del tema y tres preguntas	Tarjeta A5 con un enunciado, cuatro puntos a debatir sobre el contexto que plantea el enunciado (iguales para ambos candidatos) y un punto libre.
Preparación	1'	1'(simultánea, pero individualmente)
Exposición	3-4'	4-5' pareja (6-8' trío)
2 candidatos	10'	6' (9' trío)
Total prueba	16' (19' trío)	

